

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Ogasun Ministerioak ziurtatu du Nafarroak 2012rako defizitaren helburua bete zuela, BPGaren % 1,34arekin

*Barcina Lehendakariak helburu hori estreinakoz bete izana baloratu du eta zorpetzeari nahiz defizit publikoei eusteko politikekin jarraitzearen alde agertu da ekonomia hobetu ahal izateko*

Jueves, 28 de febrero de 2013

Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak gaur baieztatu du Nafarroak 2012ean autonomia erkidegoei ezarritako BPGaren % 1,5eko defizitaren helburua bete zuela. 2012ko aurrekontu-ekitaldiko itxieradatuaren arabera eta kontabilitate nazionalako irizpideak aplikatuta, Foru Komunitatearen iazko defizita bere BPGaren % 1,34 izan zen. Datu horiek Nafarroako Gobernuak egindako aurreikuspena hobetzen dute, % 1,47koa egin zuen, IGAEk zenbatutako kontabilitate nazionalako doikuntzei esker, batez ere.

Nafarroak jarritako helburua betetzen duen lehen aldia da, eta autonomia erkidegoen batez bestekoaren oso azpitik kokatzen da; defizitaren batez besteko hori - % 1,73 izan da 2012an. Zehazki, Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioak [argitaratutako datuen](#) arabera, 111 autonomia erkidegok lortu dute urtea defizitaren % 1,5aren azpitik ixtea.

Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcinak prentsaurrekoa eskaini du datu horien balorazioa egiteko, eta iritzi du Gobernuak hartutako prebentziozko neurriei esker (54 eta 132 milioiko gastuaren doikuntza), diru-sarrera eta gastuen etengabeko berraztertzean oinarrituz eta makrozifra horien proiektioan, Estatuak finkatutako BPGaren % 1,5eko defizitaren helburuari lotutako bere betebeharrak bete dituela. Horri guztiari esker, Nafarroak ez du Estatuaren Hornitzaileen Funtsaren eta Likidezia Funtsaren beharrik izan.

Gainera, Nafarroaren kokapena berriz ere sendotuta geratu da Estatuako ekonomia publiko guztien barnean, Lehendakariak defendatu duenez; gogoratu du Nafarroa hornitzaileei ordaintzeko epe txikiak dituen autonomia erkidegoetako bat dela, aipatuz, halaber, Foru Komunitateko kreditu-kalifikazioa Estatuako onenetariko izatea lortu dela, bi maila goitik, eta, horren ondorioz, 2013rako Nafarroari baimendutako zorra gainerako autonomia erkidegoena baino baldintza askoz onuragarri nahiz hobeagoetan jartzea erdietsi dela.

Nolanahi ere, Nafarroako Gobernuak uste du egoera oso konplikatua izaten jarraitzen duela eta epe laburreko itxaropenak ez direla onak. Alde horretatik, Barcinak defendatu du defizita eta zorpetze publikoak kontrolatzea beharrezkoa izaten jarraitzen duela, ahal den neurrian

jarduera ekonomikorako gero eta zama handiagoak bihur ez daitezten.

### **Datuak, xehatuta**

Ekitaldiaren itxiera-datuen arabera, 2012ko diru-bilketa 3.184,057 milioi eurokoa izan zen (aitortutako eskubide garbiak). Iragan urterako hasierako aurrekontuak 3.407,940 milioi euroko diru-sarrerak jasotzen zituen, eta horrek adierazten du % 6,57 gutxiago bildu dela.

Zifra horiek Nafarroako Gobernuak 2012ko lehen seihilekoaren amaieran egin zituen kalkuluekin bat datoz. Haien arabera, diru-sarrerak % 6,5 murriztea aurreikusten zen eta, horren ondorioz, gastuari eusteko neurriak hartu behar izan ziren diru-sarrerari egokitzeko: lehenengoa 54 milioiokoa eta 132 milioi euroko bigarren bat.

Aurrekontua egikaritzeari dagokionez, Nafarroako Gobernuak 3.496,759 milioi euro egikaritu du, 3.711 milioi euroko hasierako aurrekontuarekiko, % 94,23; hau da, % 5,77 gutxiago egin da.

Datu horiek, kontabilitate nazionalako dagozkion doikuntzak egin ondoren, defizita 245 milioi euroan jartzen dute, hots, Nafarroako BPGaren % 1,34, 2012rako 18.248 milioi euroan kalkulaturakoa. 2008. urtetik Nafarroako defizitaren helburua betetzen duen lehen aldia da. Urte horretan, aurreikusitako helburuaren gaineko desbideratzea % 4,7koa izan zen; 2009an, % 2,38koa; 2010ean, % 0,63koa; 2011n, % 0,67koa. 2012an, aipatu denez, desbideratzea % 0,16koa da, baina finkatutako defizitaren azpitik dago.